



NIK, IDOIA MENDIA CUEVAK, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURU ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARI naizenak,

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2012ko uztailaren 24an egindako bileran, besteak beste, honako Erabaki hau hartu zuela:

ERABAKI-PROPOSAMENA, 2009-2013KO LEGEGINTZALDIKO LEGEGINTZAKO EGUTEGIAREN SEI HILEAN BEHINGO JARRAIPENAREN DOKUMENTUA, 2012KO LEHEN SEIHILEKOARI DAGOKIONA, ONARTZEKO. (2012/00213 ESP.) (A/20120210)

2009ko azaroaren 17an, 2009-2013 IX. Legegintzaldiko Legegintzako Egutegia onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Gobernu Kontseiluaren Erabakiak agintzen duenez, Jaurlaritzako sailek txosten bat bidali behar diote sei hilean behin Lehendakaritzako Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari, Legegintzako Egutegian ezarritako konpromisoak zenbateraino bete diren eta, hala bada, aldatu egin diren azaltzeko eta, hartara, haren jarraipena eta ebaluazioa errazteko.

Agindu hori betetz, Eusko Jaurlaritzako sailek 2011ko lehen seihilekoan onartzekoak ziren 18 lege-proiekturi buruzko informazioa helarazi diote Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari: proiektu horietako batzuk hasiera batetik ziren 2011ko lehen seihilekoan onartzekoak, Gobernu Kontseiluak Legegintzako Egutegia onartzeko erabakiarekin bat, eta beste batzuen onespina, berriz, 2011ko lehen seihilekora arte atzeratu zen lege-proiektu horiek prestakuntza-prozesuan izandako gorabeheren ondorioz; alde horretatik, aurreko jarraipen-dokumentuek argi eta garbi adierazten zituzten horrelako gorabeherak.

Sailek helarazitako informazioaren arabera, Gobernu Kontseiluak 11 lege-proiektu onartu ditu 2011ko abenduaren eta 2012ko uztaila bitartean. Hauek izan dira onartutako lege-proiektuen sustatzaileak: Herrizaingo Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Justizia eta Herri Administrazio Saila; Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Saila; Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

- Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege-proiektua.
- Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Lege-proiektua.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Lege-proiektua.
- Euskadiko Enplegu Publikoaren Lege-proiektua.
- Etxebizitzaren Lege-proiektua
- Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektua.
- Kable bidezko Garraioaren Lege-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Lege-proiektua.
- Transexualitateari buruzko Lege-proiektu Integrala.
- Paisaia Antolatzeari buruzko Lege-proiektua.
- Emakume Nekazarien Estatutuaren Lege-proiektua.

Halaber, beste 3 proiektu tramitazioan daude, aurreikusitako epearen gutxienera atzerapenez; eta Gobernu Kontseiluari gutxi barru aurkeztea aurreikusita dago.

- Kargu publikoen Jokabide Kodea eta Bateriaezintasun Araubidea arautzen dituen Lege-proiektua.



- Euskara Ziurtagirien eta Tituluen Erregistro Bateratua Sortzeko eta Arautzeko Lege-proiektua.
- Osasun Publikoaren eta Elikagaien Segurtasunaren Lege-proiektua.

Seihilekoan onartzekoak ziren 18 lege-proiektuetako 4 zein tramitazio-egoeran daduen jakinarazi dute, eta, hortaz, pentsatzekoa da horien onspena atzeratu egingo dela:

- Animalien Ongizatearen Lege-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoari buruzko Lege-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gurtza Aretoen Lege-proiektua.
- Artxiboei, Dokumentuei eta Dokumentu Ondareri buruzko Lege-proiektua.

Era berean, sailek bidalitako dokumentazioaren arabera, Legegintzako Egutegian Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Legearen aurreproiektua sartzea aurreikusita dago, bat etorritz legegintzaldi honetako programaren dokumentuekin eta euskal gizarteari lege-ekimen berritzaileak ematearen helburuarekin.

Legegintzako Egutegiaren jarraipen-dokumentu hau Eusko Legebiltzarrari helaraziko zaio, aurreko hirurekin egin zen bezala, gobernuaren legegintza-jardunerako tresna baita, Eusko Jaurlaritzak kudeaketa kontrolatzeko eta gardena dela ziurtatzeko hartutako konpromisoaren esparruan.

Horrenbestez, Lehendakaritzaren proposamenez, eta aztertu ondoren, Gobernu Kontseiluak hauxe onartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa.- 2009-2013 Legegintzaldiko Legegintzako Egutegiaren sei hilean behingo jarraipena (2012ko lehen seihilekoari dagokiona) egiteko dokumentua onartzea, Erabakiaren eranskinek finkatzen dituzten baldintzetan.

Bigarrena.- Lege-proiektu hau Legegintzako Egutegian sartzea:

- Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Lege-aurreproiektua.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta horren eranskinak Eusko Legebiltzarrari helaraztea, gobernuaren eremu honetako jardunaren jarraipena egin dezan, IX. Legegintzaldiko Legegintzako Egutegia onartzen duen 2009ko azaroaren 17ko Erabakiaren bidez Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa betez”.

ERABAKIAREN ERANSKINA:

LEGEGINTZA-EGUTEGIAREN JARRAIPENA

2012ko LEHEN SEIHILEKOA

Tramitatzeko dauden 18 lege-aurreproiektuen jarraipena

1. HERRIZAINGO SAILA

1. Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jardueren Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko bigarren seihilekoa.



a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko uztailaren 17an onartua eta, 2012ko uztailaren 23an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

2. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2. Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko lehenengo hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko urtarrilaren 31n onartua eta, 2012ko otsailaren 8an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

3. Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko lehenengo hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko urtarrilaren 31n onartua eta, 2012ko otsailaren 8an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

a.3) Oharrak: 13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.

3. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4. Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Bateriaezintasun Araubidea arautzen dituen Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko bigarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluari helarazteko.

5. Euskadiko Enplegu Publikoaren Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko hirugarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko uztailaren 10ean onartua eta, 2012ko uztailaren 20an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoari buruzko Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko lehenengo hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean dago.

a.3) Oharrak: 2012ko laugarren hiruhilekoan onartzea aurreikusita dago.

7. Gurtza Aretoen Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko bigarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean dago.



a.3) Oharrak: 2012ko laugarren hiruhilekoan onartzea aurreikusita dago.

a.4) Izen berria: Euskal Autonomia Erkidegoko Gurtzarako Tokiei eta Aretoei, eta Erljio Aniztasunari buruzko Legea.

d) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurreikusitako data: 2012ko laugarren hiruhilekoan onartzea aurreikusita dago.

4. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

8. Euskadiko Etxebizitza Eskubidearen Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 5ean onartua eta, 2012ko ekainaren 18an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

a.3) Izen berria: Etxebizitzaren Lege-proiektua

9. Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko hirugarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 15ean onartua eta, 2012ko ekainaren 4an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

10. Kable bidezko Garraioaren Lege-proiektua

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko bigarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 29an onartua eta, 2012ko ekainaren 11n, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

11. Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Lege-proiektua.

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko hirugarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 12an onartua eta, 2012ko ekainaren 25ean, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

5. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

12. Transexualitateari buruzko Lege-proiektu integrala

a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2011ko laugarren hiruhilekoa.

a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko urtarrilaren 10ean onartua eta, 2012ko otsailaren 6an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

a.3) Oharrak: 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.



6. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

13. Osasun Publikoari eta Elikagaien Segurtasunari buruzko Lege-proiektua.

- a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko lehenengo seihilekoa.
- a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluari helarazteko.
- a.3) Oharrak: Kontrol Ekonomikoko Bulegoa txostena prestatzen.

7. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA.

14. Paisaia Antolatzeari buruzko Lege-proiektua.

- a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2010eko bigarren seihilekoa.
- a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012ko urtarrilaren 24an onartua eta, 2012ko otsailaren 6an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

15. Animaliak Babesteko 6/1993 Legea aldatzeko Lege-proiektua

- a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko lehenengo hiruhilekoa.
- a.2) 2012ko uztailleko egoera: Nahitaezko txostenak eta irizpenak prestatzen.
- a.3) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko aurreikusitako data: 2013ko laugarren hiruhilekoan onartzea aurreikusita dago.
- a.4) Izen berria: Animalien Ongizatearen Lege-proiektua.

16. Emakume Nekazarien Estatutuaren Lege-proiektua.

- a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko lehenengo seihilekoa.
- a.2) 2012ko uztailleko egoera: Gobernu Kontseiluak 2012 ekainaren 26an onartua eta, 2012ko uztailaren 11an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

8. KULTURA SAILA

17. - Artxiboei, Dokumentuei eta Dokumentu Ondarerari buruzko Lege-proiektua.

- a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko lehenengo seihilekoa.
- a.2) 2012ko uztailleko egoera: Alegazioak aurkeztu eta txostenak prestatzeko fasean dago.
- a.3) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko aurreikusitako data: 2013ko lehenengo hiruhilekoan onartzea aurreikusita dago.

18. Euskara Ziurtagirien eta Tituluen Erregistro Bateratua Sortzeko eta Arautzeko Lege-proiektua.



- a.1) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, legegintza-egutegian aurreikusitako epea: 2012ko lehen hiruhilekoa
- a.2) 2012ko uztaileko egoera: Gobernu Kontseiluari helarazteko.
- a.3) Gobernu Kontseiluari bidaltzeko aurreikusitako data: 2012ko bigarren seihilekoa.

II. ERANSKINA

LEGEGINTZAKO EGUTEGIAN SARTUTAKO LEGE-PROIEKTU BERRIAK

1. LEHENDAKARITZA.

62. Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Lege-aurreproiektua.

a.1.) Erregulazioaren helburu nagusia:

- a) Herritarren informazio publikorako irispina sustatzea, publizitate aktiboaren printzipioa sendotuz.
- b) Herritarrei gobernuaren plangintzaren eta haren konpromiso estrategikoen berri ematea.
- c) Politika publikoen ebaluazioa bultzatzea, honako bi alderdi hauean: ebaluatzeko betebeharra eta ebaluazio horren emaitzak jakinarazteko betebeharra
- d) Gai publikoetan erantzukidetasunez parte hartzeko kultura eta ohiturak sortzen laguntzea, dela herritarren artean, dela administrazioan bertan.

a.2.) Beste helburu batzuk

Gobernantza-eredu berri bat ezarri eta indartu nahi da, administrazio publikoaren jarduna eta antolamendua ulertzeko modu berria ez ezik, administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko elkarrekintza ulertzeko beste modu bat ere ezarri, norbanakoa gobernuaren erreferentzia nagusia, gobernuaren partaidekidea eta erantzukidea dela ulertuta.

Aurreproiektu honen helburua da aldaketa kulturala bultzatzea, eta, horretarako, inplikaturako eragileek adierazitako printzipioak –informazioa, parte hartzea, kontu ematea...– barneratzeko eta euren gain hartzeko prozesua bultzatu beharra dago, sortu beharreko aldaketak gobernuaren, langile publikoen eta herritarren artean kontratu sozial berri bat eragin dezan, konplizitate soziala nagusi izango den harreman justu eta orekatuetan oinarritutakoa.

a.3.) Inplikaturako gizarte-sektoreak

- Gizarte-talde interesdunak.
- Herritarrak, oro har

c) Legebiltzarrera bidaltzeko, Gobernu Kontseiluan gutxi gorabehera noiz aurkeztea aurreikusten den.

Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Aurreproiektua Gobernu Kontseiluari 2013ko lehen hiruhilekoan aurkeztea aurreikusita dago, onar dezan.

Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2012ko abuztuaren 21ean.

